

HAURRASATE



Haurrak ardatz,
Arrasate hobetuz

Abiapuntuko zenbait ideia

- Txatxili, Huheziko ikerlariak eta Bagarako kideak elkarlanean jarri ginenean, herri hezitzailea, hezkuntza proiektu komunitarioak, haurren ikuspegia, etab. Bezalako gaiak aztergai.
- Hasierako ideietatik, zehaztapen mailarako saltoa.
- Haurren ikuspegiaren lanketatik abiatuta, Herri ikuspegia garatzen hasteko gonbidapena.

Abiapuntuko zenbait ideia

- Arrasatek aukera onak eskaintzen ditu horrelako ERRONKA bati erantzuteko:
 - Aurrez egindako ibilbidea jendarteratu eta balioan jarri
 - Borondate politikoa dago
 - Praktika onak egin izan dira herrian
 - Esparru ezberdinak integratzeko aukera (hirigintza, gazteria, hezkuntza, berdintasuna, etab.)
- Haurrasatek, herri proiektu izaera lortuz gero, narrazio positibo oso bat idazteko aukera eskaintzen du.
 - Ilusionagarria
 - Ezberdina
 - Kolektibo ezberdinak batzeko modukoa

Haurrasate



Arrasate hobe bat nolakoa izan daitekeen irudikatzen hasteko ekimena da honakoa, haurren ikuspegia kontutan hartzetik abiatzen dena.

Baina Haurrasate **ez da haurrentzat bakarrik.**

Arrasatearron bizi-moduarekin lotuta dauden gaien inguruko hausnarketa egiteko gonbidapena da hau, baina helburua, etorkizunera begira, herri mailako egitasmo bat sortzea da.

Lehen pausua...



**Urritik abendura arte
egin gura duguna,
hanka-kosko
koloretsu honen lehen
pausua besterik ez da.**

Lehen pausua...

- Herri eta eragileekin **HAUSNARKETA** unea.
 - **Helburuak:**
 - Elkarlana sustatzea
 - Egingarriak izan daitezkeen ekimenen zerrenda osatzea
 - Herri mailan egin diren / egiten diren ekimenak babestea
 - Ahal bada, modu iraunkorrean antolatuko den taldea osatzea.
 - LERRAKETA bat, herritarrak baztertuen ikuspegiari kokatzea.

Ba al dago zer hobetu?

- Jarri al zarete sekula pentsatzen gure herriko haurrek nola ikusten duten Arrasate?
- Zer nolako bizipenak dituzte gurpildun aukietan dabiltzan pertsonak edo gurpildun karrotxoak batetik bestera eramaten dituztenek?
 - Ze iritzi dugu arrasatearrok herriko berde-guneetaz?
 - Jolastu eta gustura egoteko lekuak al dira?
 - Nolako Arrasate ezagutu dugu adin ezberdinetako herritarrok?

Gogoetarako gakoak eskaintzen dizkigute galdera hauek ...



Haurrak ardatz?

- Haurren iritziak eta ekarpenak jaso nahi dira, baina **honakoa ez da haurrentzako ekimen bat bakarrik**.
- Normalean kontutan hartzen ez diren ahotsez berba egiten dugu haurrez dihardugunean; etorkinak, gazteak, emakumeak, adindunak, aniztasun funtzionala dutenak, etab.
- Ikuspegi hauek aintzat hartzeak aukera ezin-hobea eskaintzen digu gai askoren inguruan hausnartu eta herritar zein eragileak, herri iraunkor, seguru eta arduratsuago baterantzko pausuak eta ikuspegiak bateratzen hasteko.



Zer egingo dugu?

- Herritarrekin, dinamikoak eta anitzak izango diren saioen bitartez, Arrasate eta gure bizimoduaren inguruko gaiak jorratu nahi ditugu. Gai hauek, adin tarte ezberdinetako jendearekin batera egin gura dira, bakoitzarentzat egokitutako saioetan, haurren, gazteen eta gainerako herritarron ekarpen eta iritziak jasoz.



Taula honetan herritarrekin burutuko diren saioen gaiak zeintzuk izango diren zehazten da.

Saioa	Eguna	Lan ildoak
1	Urriak 9 (asteazkena) 18.00 Monterronpean	ESPAZIO IREKIAK eta PERTSONEN ONGIZATEA. Ingurunearekin harreman osasuntsuak ardatz hartuta espazio irekiak ongizaterako eremu gisa; berde-guneak, parkeak.
2	Urriak 23 (asteazkena) 18.00 Kultur Aten	IRISGARRITASUNA eta PERTSONEN AUTONOMIA. Mugikortasun printzipioetatik haratago haurren autonomiarako urrats praktikoak; eskola bidea egitasmoak.
3	Azaroak 6 (asteazkena)	Esperientzia ezberdinen ezagutza.
4	Abenduan	Amaierako jaia

Hurrengo pausuak ...

- Abendura arte gai hauek lantze gura dugu; Arrasaten zer hobetu badagoela elkarrekin ikustea, aztertzea, esperimentatzea, etab. Hala ere, erronka handiagoa planteatzea dugu helburu. Posible al da haurrak eta herritarrak ardatz izango dituen Arrasate bat eraikitzea? Jendarte guztiaren inplikazioa izango duen herri hezitzaile bat sortzeko aukerarik ba al dugu? Hezkuntza proiektu komunitarioak bideratzeko marko bat adostu al dezakegu denon artean, non herritarrok komunitate gisa hezkuntza erronkei elkarrekin helduko diegun?
- Hori izango litzateke hanka-kosko gisa irudikatzen dugun ibilbide honen azken laukitxoak: **Arrasate hezitzaileago eta arduratsuago bat sustatzeko egitasmo bati forma ematea.**



Hurrengo pausuak ...

- Arrasaten, herri hezitzailearen eta hezkuntza proiektu komunitarioen inguruan azken urteotan egindakoa jasotzea.
- Arrasateko Udalarekin modu iraunkorrean elkartzea egitasmoa gorpuzteko aukerak aztertzeko.
- Esperientzia konkretuen inguruko saioa elkarrekin antolatzea.
- ...



Eskerrik asko!

